



Esp. kodea: 2015SAPL0013

Gaia: PLENOA 2015-11-03  
Hasiera eguna: 2015/10/27

## AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2015eko azaroaren 3a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

### 1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2015eko urriaren 13a egindako bileraren akta onartu du.

### 2.- LANPOSTUEN BALORAZIO KOMITEAREN ORDEZKARIAK IZENTZEA.

Arrasateko Udalaren Lanpostuen Balorazioak Mantentzeko Sistemak, Udalbatzak 2003/05/20an onartutakoaren arabera, Balorazio Komite bat osatu beharra aurreikusten du.

Aipatu Komiteak honako osaera izan behar du:

- Batzordeburua, Alkatetzak aukeratua, Udalbatzaren ordezkariak duten batzordekideen artean.
- Ordezkaritza soziala: zenbat sindikatu Negoziazio Mahaian ordezkaturik (gaur egun ELA eta LAB), hainbat batzordekide, sindikatu bakoitzak bana aukeraturik udal langileen artean.
- Udalbatzaren ordezkariak: zenbat sindikatu Negoziazio Mahaian ordezkaturik, hainbat batzordekide, udalbatzarrak aukeraturik.
- Idazkari bat, hitzarekin eta botoarekin. Egiteko hori, jeneralean, Pertsonal buruak beteko du.

Osoko bilkurak Balorazio Komiteko kide izendatu ditu, Udalbatzarraren izenean, hurrengo zinegotzi hauek:

- **Titularrak:** JUAN KARLOS GARRITANO EZKURRA (EAJ-PNV) eta AMAIA LARRAÑAGA GALDOS (EH-BILDU).
- **Ordezkariek:** VICTORIANO FUENTES NOGUERA (PSE-EE), IGOR URIZAR MURGOITIO (Baleike) eta JUAN LUIS MERINO SANABRIA (Irabazi), hurrenkera honetan.

### 3.- BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORRETAKO KIDE KOPURUA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Osoko bilkurak erabaki du Uztailaren 13an, BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORRAK ERATU ETA OSATZEARI BURUZKO erabakiari dagokion bigarren puntua ALDATZEA, honako



Esp. kodea: 2015SAPL0013

Gaia: PLENOA 2015-11-03  
Hasiera eguna: 2015/10/27

idazkera emanez:

*BIGARREN.- Batzordeak 10 kidez osatuko dira, honako banaketarekin: BALEIKE udal taldeko kide bat, IRABAZI udal taldeko kide bat, PSE-EE udal taldeko kide bat, BILDU udal taldeko 3 kide eta PNV-EAJ udal taldeko 4 kide.*

**4.- UDALA-BESAIDE IBILBIDEAREN ETA INGURUKO BALIABIDE NATURAL ETA KULTURALAK HOBETZEKO ETA BERRESKURATZEKO TESTU BATERATUAREN OBREI DAGOKIEN D (AUZOAN DAGOEN GARBITOKIA ETA ITURRIA EGOKITZEA) ARLOKO LANAK BURUTZEKO BEHARREZKO ONDASUNAK ESKURATZEKO DAGOKION DESJABETZE ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEKO UDAL BATZARRARI PROPOSAMENA EGITEA.**

Osoko bilkurak erabaki du desjabetuko diren ondasunen erlazio zehatza onartzea, horien titularrak zehatzuz, okupazioa urgentziazkotzat jotzea, eta akordioa argitaratzea, 20 laneguneko epean jendaurrean jarritz.

**5.- 2015EKO AURREKONTUAREN KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEA.**

Osoko bilkurak aurkeztutako kredituak aldatzeko espedientea onartu du, 353.300 euroko kreditu transferentziari dagokiona, hain zuzen ere.

**6.- INFORMATZEA UDALEKO OSOKO BILKURARI GASTU ARAUA ETA AURREKONTU EGONKORTASUNA EZ DIRELA BETETZEN ARI, 2012KO ABENDUAREN ORDAINSARI BEREZIA ORDAINDU BEHAR DELAKO.**

Osoko bilkurak informazio honen berri hartu du.

**7.- PROTOKOLOA ONARTZEA, DEBAGOIENENKO KOORDINAZIO SOZIOSANITARIOARI BURUZKOA**

Osoko bilkurak Debagoieneko koordinazio soziosanitarioari buruzko protokoloa onartu du.

Dokumentu honen xedea da koordinazio soziosanitarioiko protokolo bat zehaztea honako hauen artean: Debagoieneko ESI (Lehen Mailako Arretako eta ospitaleko unitateak), Ospitalez Kanpoko Osasun Mentaleko Sarea, Donostia Ospitalea, udalen gizarte-zerbitzuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentua.

Protokoloaren helburua da koordinazio soziosanitarioiko gida bat izatea, bere xede orokor eta espezifikoak betetzen laguntzeko. Hona hemen helburu horiek:

- Debagoieneko Eskualdean behar soziosanitarioak dituzten pertsonentzako arreta ziurtatzea, komunitate-arreta transbertsal baten bidez, zeinak bermatuko baitu zaintza ematen jarraituko zaiela ohiko bizilekuan (egoitza geriatrikoak barne), lehen mailako arretako taldeen, arreta



Esp. kodea: 2015SAPL0013

Gaia: PLENOA 2015-11-03  
Hasiera eguna: 2015/10/27

espezializatukoen, osasun mentaleko sarearen eta gizarte-zerbitzuen esku-hartzearekin.

- Erkidego-mailako koordinaziorako beharrezkoak diren egiturak garatzea.
- Arreta sustatzea kasuak kudeatzeko metodologia erabiliz koordinazio soziosanitariorako funtsezko elementu moduan.

#### **8.- GENERO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUAN PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Osoko bilkurak PSE-EE udal taldeak aurkeztutako mozioa onartu du.

#### **9.- EH-BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA, DEBAGOIENENKO OSPITALEAN ERRESONANTZIA MAGNETIKORAKO UNITATE BAT ZABALTZEKO ESKATUZ.**

Osoko bilkurak EH BILDU udal taldeak aurkeztutako mozioa onartu du

#### **10.- INO BE LIBREK AURKEZTUTAKO MOZIOA, INO GALPARSOROREN EPAIKETAREN INGURUAN.**

Osoko bilkurak INO BE LIBREk aurkeztutako mozioa onartu du-

Arrasaten, 2015eko azaroaren 3an

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta